



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 4a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena (19. or.).
- Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea (21. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Proposamenaren testua (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko uztailaren 2an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentura igorri du foru lege proiektu bat, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko irailaren 26an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

ZIOEN AZALPEN

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen du “Toki Ogasunek behar adinako baliabideak izanen dituztela legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuetan eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan dituzten partaidetzaz hornituko dira”.

Nafarroak eskumena du toki ogasunei dagoen arloa arautzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua arabera.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, toki ogasunei buruzko VIII. tituluan xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta haien esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, Nafarroaren toki araubide berekiko gaia den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusia. Horren bidez zehaztu besterik ez da egiten askitasun finantzarioaren printzipioa, Konstituzioaren 142. artikuluan biltzen dena, bertan jartzen baitu udalek behar adina baliabide izan beharko dutela legeak beren gain uzten dituen eginkizunak betetzeko, eta horretarako beren tributuetan eta Estatukoetan nahiz autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz hornituko direla.

Aurrekoa betetzeko xedez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributuak eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan duten partaidetza.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, I. tituluan, toki ogasunen baliabideen gainekoa baita, 123. artikuluan hain zuzen, zehatzago arautzen du zenbaterainoko partaidetza izanen duten toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan. Ezartzen da, horrela, udal agintaldi bakoitzeko bigarren urteko lehen sei hilabetekoan Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako Parlamentura arau-proiektu bat bidaliko duela non bilduko baita, batetik, zer zenbateko izanen duen toki ogasunek Nafarroako zergatan parte hartzeko funtsak hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietan, eta, bestetik, zein izanen den funts hori banatzeko formula, justizia- eta proporzionaltasun-irizpideak kontuan hartuta.

Bestetik, martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legeak, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duenak, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatzen du plan berria onetsi arte, plan haren funtsen kargura gastu konpromisoak hartu eta baimentzeko aukera emanez, eta horrexegatik, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa arautzen duen foru lege honetan ez da jaso kapital transferentzien kontzeptua.

Abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legeak Funtsaren zuzkidura eta banaketa arautu zituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu ekitaldietarako, eta, hala, Toki Ogasunei buruzko Foru legearen 123. artikuluan aurreikusitako iraupenetik aldendu zen, salbuespen izaeraz.

Iraupenerako eta denbora banaketarako 123. artikuluko horrek taxutu duen bidera itzultze aldera, beharrezkoa da partaidetza funtsa arautuko duen foru lege berriak bi ekitaldiko iraupena izatea, 2015ekoa eta 2016koa, zehazki.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, zein den toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbateko osoa.

Transferentzia arrunten zenbateko osoa, 3. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitakoa, banakako zenbatekoetan banatu da, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, abenduaren 26ko 20/2012 Foru legea-

ren II. kapituluan deskribatutako irizpideei jarraikiz, oinarritzat hartuta foru lege horren 3.1 artikuluan aurreikusitako banaketa, 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eguneratuta. Banakako zenbateko horiek foru lege honen eranskinean jaso dira.

2016ko ekitaldirako, aurrekusi da 2015. urterako ezarritako funtsari gehituko zaiola kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako igoera, ekainetik ekainera neurtua.

“Beste laguntza batzuk” izeneko atalak honako kontzeptu hauek biltzen ditu: abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen arabera, “Iruñearen Hiriburutza Agiria” kontzeptuagatik Iruñeko Udalari dagokion zuzkidura; beste zuzkidura bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 72.2 artikuluan, interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkarteentzako laguntza ekonomikoei buruz, ezarritakoa betetzeko. Eta, azkenik, beren eginkizun instituzionaletan aritzeagatik euren korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak edo egindako gastuen ondoriozko bestelako gastuak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalenzako konpentsazioa” izeneko atalari dagokiona foru lege honetan zehazten den bezala banatuko dena.

Azkenik, foru legean prozedura bat sartu da hautetsien dedikazioagatik egindako ordainketak konpentsatzeko laguntzak balio gabetu edo atxikitzeko, legea zenbait kasutan urratu egiten dela ikusirik.

1. artikulua. Iraupena

Foru lege honek Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa arautzen ditu 2015eko eta 2016ko ekitaldietarako.

2. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

1. 2015eko ekitaldian, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 200.688.073 eurokoa izanen da.

2. 2016ko ekitaldian funtsak izanen duen zuzkidura zehazteko, 2015. urterako ezarritakoari gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako igoera, ekainetik ekainera neurtua.

3. artikulua. Banaketa.

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa, 2015eko ekitaldirako, honela banatuko da:

1. Transferentzia arruntak: 171.474.537 euro.

2. Beste laguntza batzuk:

a) Iruñeko Udalari, "Hiriburutza Agiria" delakoa-gatik: 23.401.274 euro.

b) Nafarroako udalei, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 5.421.544 euro.

c) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 390.718 euro.

3. Toki entitate bakoitzak, 2015eko ekitaldian, 1. idatz-zatian aurreikusitako kontzeptuengatik jaso beharreko diru kopuruak foru lege honen eranskinen jaso dira.

4. artikulua. Aurrekontuko dirua.

1. Nafarroako 2015eko Aurrekontu Orokorretan jasoko da toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa, aurreko artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusitako zenbatekoak ere zehaztuta.

2. Nafarroako 2016ko aurrekontu orokorretan, transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako jasoko den zenbatekoa aurreko ekitaldian izanen da, 2.2 artikuluan aurreikusitako moduan areagotuta, eta kontuan harturik Lehen Xedapen Gehigarriaren 2. atalean jasotako aurreikuspenak.

5. artikulua. Ordainketa transferentzia arrunten kontzeptuan.

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtseko diru kopuruaren ordainketa, transferentzia arrunten kontzeptuan sleitutakoari dagokiona, lau zati berdinetan eginen da ekitaldi bakoitzean, eta hiruhileko natural bakoitzeko lehen hamabostaldian ordainduko dira.

2. Udallerrien eta beraien mugapeko kontzejuen artean izenpetutako hitzarmenak baldin badaude eta horietan hala ezarririk baldin badago, entitate horientzako ordainketak izenpetutako hitzarmenean aurreikusitako moduan egin ahal izanen dira.

6. artikulua. Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzen kontzeptuan egiten diren ordainketak.

Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzen kontzeptuko ordainketak ohiko transferentzietarako aurreko artikuluan aurreikusitako modu berean eginen dira.

7. artikulua. Nafarroako udalantzako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindu-takoaren aldera.

Hautetsien kargu publikoetan aritzeagatik korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalte-ordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalean aritzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako pagamenduak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalantzako konpentsazioa honela eginen da:

a) Baldin eta udalek alkate eta zinegotzietan ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, denbora osoan edo partzialean hautetsi aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalte-ordainak edo bestelako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, udal horiek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, ordain horien kostua kitatzeko.

b) Kontzeptu horrengatik, udalek urtean jaso ahal duten gehieneko ekarpena, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

b.1) 3 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 4.196,43 euro.

b.2) 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 10.807,87 euro.

b.3) 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 15.893,99 euro.

b.4) 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 19.073,19 euro.

b.5) 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 30.516,69 euro.

b.6) 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 52.768,37 euro.

b.7) 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 80.742,22 euro.

b.8) 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 115.709,39 euro.

b.9) 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 193.908,04 euro.

c) Ekarpene horiek beren xedeari lotuak egonen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietan aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta 2016ko ekitaldian eguneratuko dira, 2.2 artikuluan ezartzen den moduan.

d) Ordainketa behin eginen da transferentzia arrunten funts orokorraren bigarren zatiarekin, jaso nahi duten udalek urte bakoitzeko urtarrean alde aurretik eskatuta, eta eskabideari ekarpen honek

aurreko ekitaldian izandako zenbatekoa eta xedearen ziurtagiria gehitu beharko diote, halakorik egin bazuten. Ekitaldi bati esleitutako diru kopurua egiaztagirian justifikatutakoa baino handiagoa denean, aldea erregularizatu egingen da, kasuko ekitaldiari dagokion ordainketatik kenduz.

e) Artikulu honen b) letran jasotako konpentsazioak baliogabetu edo atxiki egingen dira kasu hauetan:

1. Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legea urratzen denean kasu hauetan:

– Udaletxeko fatxadan zintzilik jarrita ez daudenean legez aurreikusitako banderak.

– Udalaren edozein eraikin edo instalazioetan, bai eta eremu publikoan ere, beste herrialde, autonomia erkidego edo toki entitate batzuetako banderak zintzilik jarrita izatea, salbu eta Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

2. Era berean, konpentsazioak baliogabetu edo atxiki egingen dira, prozedura berbera betez, honako kasu hauetan:

– Lokalak edo eraikin publikoak entitate edo kolektiboei laga ondoren, indarkeria laguntzeko edo terrorismoaren, talde terroristen edo legez kanpoko erakundeen apologia egiteko edo haiei gorazarre egiteko egoerak gertatzen badira bertan.

– Aurreko ataleko edukiekin lotura duten pintaketak, afixak, sinboloak edo elementuak jartzen direnean.

– Lokal edo eraikin publikoetan egiten diren ekintzetan terrorismoaren biktimen memoriari laido egiten bazaio, haien eta haien senitartekoen kontrako ospe-galtzea, gutxiespena, umilazioa eraginez.

3. Lege-urratzea noiz frogatzen den, ekitaldi horretan berean jaso beharreko ordainketa osoa baliogabetu edo atxikiko da.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak baliogabetez edo atxikitzeko prozedura irekiko du, udalari lege urraketa jakinaraziz, eta, betiere, alegazioak egiteko epe bat eman beharko zaio ukitutako entitateari.

Prozedura hori amaituta, toki entitateak ez baditu itzultzen eskatutako konpentsazio guztiak, Nafarroako Gobernuak funts orokorraren kargura konpentsatuko du.

Lehen xedapen gehigarria. Korporazioko kideentzako ordainketetarako esleipena egokitzea.

1. 2015ean, korporazioko kideentzako ordainketari dagokion zenbatekoa 3.2 b) artikuluan finkatutakoa izanen da, hauteskundeei buruzko legeen ondorioz ekitaldi horretan korporazioetako kideen kopuruan gerta daitezkeen aldaketak gorabehera.

2. 2016ko zenbatekoa kalkulatzeko, berriz, kontuan hartuko da azken udal hauteskundeen ondorioz sortutako korporazioetako kideen kopurua, 2.2 artikuluan aurreikusitako eguneratzea gehituta; ekitaldi horri dagozkion Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasoko da zenbateko hori.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten Funttsaren kontu-sailen arteko funts mugimenduak.

Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtseko kontu-sailen arteko funts mugimenduak egin ahal izanen dira, aurrekontu aldaketen izaera izan gabe.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

1. eranskina			Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
Transferentzia arruntak					
Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa			
0010000	Abaigar	29.953,45	0170700	Olague	18.394,18
0020000	Abartzuza	152.627,90	0180000	Añorbe	107.109,80
0030000	Abaurregaina	48.026,77	0190000	Agoitz	682.124,65
0040000	Abaurrepea	15.421,14	0200000	Araitz	119.958,34
0050000	Aberin	99.702,74	0200100	Arribe-Atallu	25.211,47
0060000	Ablitas	733.632,36	0200200	Azkarate	14.794,08
0070000	Adios	52.333,89	0200300	Gaintza	6.189,18
0080000	Aguilar Kodes	29.822,53	0200400	Intza	6.711,14
0090000	Oibar	249.713,90	0200500	Uztegi	5.901,54
0100000	Altsasu	1.979.060,90	0210000	Aranaratxe	28.877,46
0110000	Allin	205.433,32	0220000	Arantza	129.562,06
0110100	Amillao	2.646,72	0230000	Aranguren	1.705.700,66
0110200	Aramendia	6.586,18	0230100	Aranguren ibarra	5.742,15
0110300	Arbeitza	17.282,53	0230300	Labiano	8.571,58
0110400	Artabia	12.588,95	0230700	Taxoare	38.797,34
0110500	Etxabarri	6.841,18	0230800	Zolina	2.348,74
0110600	Eultz	5.753,21	0240000	Arano	34.522,73
0110700	Galdio	7.075,18	0250000	Arakil	204.240,74
0110800	Larrion	15.865,23	0250200	Ekai	3.355,52
0110900	Muneta	4.344,06	0250300	Etxarren	14.220,51
0111000	Zubielki	10.881,74	0250400	Etxeberri	5.554,50
0120000	Allo	313.974,36	0250500	Egiarreta	6.046,85
0130000	Ameskoabarrena	185.143,81	0250600	Errotz	6.563,55
0130100	Artatza	13.750,04	0250800	Izurdiaga	15.887,86
0130200	Bakedao	14.189,68	0250900	Satrustegi	4.415,38
0130300	Barindao	9.865,76	0251000	Urritzola	1.919,66
0130400	Ekala	5.827,43	0251100	Hiriberri	13.591,98
0130500	Gollao	4.989,70	0251200	Ihabar	10.547,67
0130600	San Martin Ameskoa	9.225,41	0251300	Zuhatzu	4.024,36
0130800	Zudairi	50.149,53	0260000	Aras	53.873,64
0140000	Antzin ibarra	108.994,42	0270000	Arbizu	274.421,27
0140100	Antzin	43.730,28	0280000	Artzibar	93.081,01
0140200	Mendilibarri	2.981,61	0280100	Arrieta	4.739,64
0150000	Andosilla	853.571,42	0280300	Azparren	4.988,62
0160000	Antsoain	2.514.726,41	0280700	Lakabe	5.921,78
0170000	Anue	82.673,54	0280900	Nagore	5.988,79
0170100	Aritzu	4.787,39	0281000	Saragueta	2.943,45
0170200	Burutain	5.483,43	0281100	Uritz	2.712,39
0170300	Egozkue	2.202,57	0281200	Hiriberri Artzibar	3.193,69
0170400	Etsain	3.738,72	0290000	Los Arcos	338.420,68
0170500	Etulain	1.971,46	0300000	Arellano	65.187,50
0170600	Leazkue	1.615,83	0310000	Areso	100.168,30
			0320000	Arguedas	677.462,87
			0330000	Aria	20.137,97

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa	Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
0340000	Aribe	18.872,77	0590000	Burgi	54.316,09
0350000	Armañanzas	26.313,13	0600000	Burlata	4.811.984,64
0360000	Arroitz	288.325,80	0610000	El Busto	31.784,14
0370000	Arruazu	28.177,71	0620000	Cabanillas	434.879,75
0380000	Artaxoa	460.085,85	0630000	Cabredo	25.311,82
0390000	Artazu	35.676,98	0640000	Cadreita	699.948,44
0400000	Atetz	59.646,97	0650000	Caparroso	713.082,31
0400100	Aroztegi	4.209,83	0660000	Cárcar	336.061,18
0400200	Beratsain	3.606,66	0670000	Zarrakaztelu	605.777,94
0400300	Beuntza	6.315,34	0670100	Figarol	54.714,27
0400400	Ziganda	2.432,30	0680000	Cascante	1.170.419,59
0400600	Eritze Atetz	4.202,67	0690000	Kaseda	243.734,50
0410000	Aiegi	511.340,56	0700000	Castejón	846.145,95
0420000	Azagra	979.116,18	0710000	Gazteluberri	3.972,50
0430000	Azuelo	15.763,75	0720000	Cintruéni	2.423.423,46
0440000	Bakaiku	81.267,50	0730000	Ziordia	99.463,57
0450000	Barasoain	201.108,06	0740000	Zirauki	131.306,23
0460000	Barbarin	30.712,28	0750000	Ziritza	37.688,51
0470000	Bargota	91.476,14	0760000	Zizur	597.076,23
0480000	Barillas	77.226,05	0760100	Asterain	24.380,46
0490000	Basaburua	223.686,49	0760300	Zizur Txikia	159.288,34
0490100	Arrarats	5.644,20	0760400	Gazolatz	10.432,92
0490200	Berute	16.154,00	0760500	Larraia	4.378,09
0490300	Gartzaron	7.367,95	0760600	Muru Asterain	4.512,80
0490400	Itsaso	6.095,77	0760700	Paternain	24.169,79
0490500	Igoa	8.590,22	0760900	Undio	13.397,93
0490600	Jauntsarats	17.883,49	0761000	Zarikiegi	12.055,89
0490700	Orokietta-Erbiti	9.438,05	0770000	Corella	2.231.616,01
0490800	Udabe-Beramendi	7.973,59	0780000	Cortes	770.397,60
0490900	Ihaben	4.720,91	0790000	Desoio	44.422,02
0500000	Baztan	2.044.138,60	0800000	Deikaztelu	162.059,05
0510000	Beire	82.619,02	0810000	Donamaria	102.829,80
0520000	Beraskoain	24.223,30	0820000	Etxalar	179.532,52
0530000	Berbintzana	210.342,47	0830000	Etxarri	14.031,92
0540000	Bertizarana	108.666,21	0840000	Etxarri Aranatz	532.552,72
0540100	Legasa	25.953,31	0840100	Lizarragabengoa	3.838,07
0540200	Narbarte	34.125,14	0850000	Etxauri	169.455,85
0540300	Oieregi	12.094,72	0860000	Eguesibar	3.189.277,39
0550000	Betelu	86.394,37	0860100	Altzuza	21.561,54
0560000	Biurrun-Olkotz	40.678,16	0860200	Ardatz (Eguesibar)	6.160,65
0560100	Biurrun	13.849,35	0860300	Azpa	2.392,32
0560200	Olkotz	3.612,44	0860400	Badoztain	27.535,53
0570000	Buñuel	690.194,01	0860500	Egues	31.130,89
0580000	Auritz	81.568,04	0860600	Elkano	30.886,32

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa	Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
0860700	Elia	1.904,45	0990000	Etaio	23.985,73
0860800	Ibiriku	5.802,45	1000000	Eulate	103.463,34
0860900	Olatz	57.327,88	1010000	Ezkabarte	239.026,39
0861000	Sagaseta	2.806,69	1010200	Arre	60.707,49
0870000	Elgorriaga	62.657,18	1010300	Azotz	6.764,04
0880000	Noain (Elortzibar)	1.510.398,08	1010400	Zildotz	3.454,89
0880100	Elortz	16.673,44	1010500	Eusa	4.747,79
0880200	Gerendiain	2.967,75	1010800	Makirriain	4.405,15
0880300	Imarkoain	20.740,74	1010900	Orikain	9.414,76
0880500	Dorre	16.528,10	1011000	Orrio	4.619,48
0880700	Zabalegi	5.462,57	1011100	Sorauren	16.025,36
0880800	Zulueta	3.407,07	1020000	Ezkurra	42.660,15
0890000	Eneritz	96.291,36	1030000	Ezporogi	23.361,12
0900000	Eratsun	32.315,00	1030100	Ageza	8.169,22
0910000	Ergoiena	96.677,25	1040000	Faltzes	634.757,86
0910100	Lizarraga	21.393,29	1050000	Fitero	682.584,61
0910200	Dorrao	11.724,58	1060000	Fontellas	299.793,87
0910300	Unanu	10.712,45	1070000	Funes	701.307,85
0920000	Erroibar	184.889,59	1080000	Fustiñana	735.283,35
0920100	Aintztoa	2.891,83	1090000	Galar Zendea	593.453,07
0920300	Zilbeti	5.659,76	1090100	Arlegi	10.264,73
0920400	Erroibar	13.476,79	1090300	Espartza Galar	40.967,25
0920500	Esnotz	3.748,86	1090400	Ezkirotz	49.561,21
0920600	Aurizberri	27.621,65	1090500	Galar	15.750,56
0920700	Lintzoain	6.410,07	1090600	Olatz-Subitza	3.586,47
0920900	Mezkiritz	8.934,89	1090700	Getze Galar	36.743,52
0921000	Orondritz	4.518,33	1090800	Subitza	24.325,91
0921100	Bizkarreta-Gerendiain	9.710,30	1090900	Cordovilla	70.050,82
0930000	Ezkaroze	93.482,85	1100000	Galipentzu	39.648,06
0940000	Eslaba	48.331,64	1110000	Galoze	34.396,32
0950000	Espartza Zaraitzu	32.247,70	1110200	Izize	2.828,03
0960000	Esprontzeda	52.596,99	1110300	Itzalle	4.913,82
0970000	Lizarra	3.639.917,18	1110400	Uskartze	5.751,60
0980000	Esteribar	538.519,65	1120000	Garaioa	33.506,18
0980200	Antxoritz	2.886,68	1130000	Garde	34.003,17
0980600	Eugi	38.981,04	1140000	Garinoain	127.304,71
0981100	Inbuluzketa	4.178,52	1150000	Garralda	68.442,99
0981200	Iragi	2.049,34	1160000	Genevilla	27.733,78
0981500	Larrasoaña	14.446,70	1170000	Goizueta	170.320,08
0981900	Saigots	7.600,10	1180000	Goñerri	66.319,51
0982000	Sarasibar	2.881,26	1180100	Aizpun	3.857,66
0982200	Urdaitz	9.513,90	1180200	Azantza	7.691,20
0982500	Zabaldika	2.548,90	1180300	Goñerri	5.767,68
0982600	Zubiri	56.643,73	1180400	Amunarritz	8.498,86

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa	Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
1180500	Urdotz	3.811,85	1310000	Itza	311.175,34
1190000	Gorza	23.396,24	1310100	Aginaga	1.885,55
1190100	Gorza	5.380,50	1310200	Aldaba	7.866,27
1190200	Igari	3.981,75	1310300	Aritz	2.605,92
1200000	Gesalatz	121.593,02	1310400	Atondo	3.448,55
1200100	Argiñao	4.602,59	1310500	Zia	3.673,84
1200300	Estenotz	2.871,26	1310600	Eritze	5.200,25
1200400	Garisoain	3.508,68	1310700	Gulia	5.610,88
1200500	Genbe	3.181,71	1310800	Itza	14.255,83
1200700	Irurre	4.563,63	1310900	Larunbe	7.389,78
1200800	Iturgoien	10.583,94	1311000	Lete	3.636,26
1200900	Izurtzu	2.091,69	1311100	Otxobi	5.701,39
1201000	Lerate	3.297,26	1311200	Saratsa	14.623,89
1201100	Muetz	5.115,59	1311300	Saratsate	3.332,37
1201200	Muniain Gesalatz	2.443,21	1320000	Itzagaondoa	52.320,02
1201400	Bidaurre	4.275,35	1320100	Ardatz Itzagaondoa	4.167,08
1210000	Girgillao	29.785,06	1330000	Itzaltzu	18.106,42
1210200	Etxarren Girgillao	4.838,54	1340000	Jaurrieta	62.699,06
1210300	Girgillao	5.589,56	1350000	Xabier	64.909,42
1220000	Uharte	1.331.457,02	1360000	Txulapain	118.511,96
1230000	Uharte Arakil	219.475,55	1360300	Beorburu	2.554,18
1240000	Ibargoiti	37.266,65	1360400	Gartziriain	3.181,85
1240100	Abintzao	1.921,15	1360500	Larrioz	2.012,65
1240200	Idotzin	4.084,26	1360600	Markalain	5.347,06
1240300	Izko	3.636,75	1360700	Nabatz	3.611,85
1240400	Getze Ibargoiti	7.491,64	1360800	Nuin	3.916,46
1250000	Iguzkitza	93.377,83	1360900	Ollakarizketa	8.511,00
1250100	Azketa	7.104,84	1361000	Otsakar	2.848,70
1250200	Iguzkitza	23.687,58	1361100	Osinaga	2.436,64
1250300	Labeaga	5.936,45	1361200	Untzu	5.045,67
1250400	Urbiola	5.107,35	1370000	Beintza-Labaien	63.745,63
1260000	Imotz	109.105,92	1380000	Lakuntza	293.841,46
1260100	Etxaleku	12.340,72	1390000	Lana	72.757,64
1260200	Eraso	4.941,59	1390100	Galbarra	7.661,01
1260300	Goldaratz	4.335,42	1390200	Gastiain	10.419,31
1260400	Latasa	8.492,71	1390300	Narkue	4.042,25
1260500	Muskitz	3.883,73	1390400	Iribarri	3.645,89
1260600	Oskotz	7.594,70	1390500	Biloria	6.352,10
1260700	Urritza	4.282,91	1400000	Lantz	23.817,31
1260800	Zarrantz	1.889,69	1410000	Lapoblación	41.508,22
1270000	Irañeta	40.681,73	1410100	Lapoblación	4.321,19
1280000	Izaba	86.692,81	1410200	Meano	13.790,32
1290000	Ituren	109.957,30	1420000	Larraga	551.553,42
1300000	Iturmendi	120.646,78	1430000	Larragoa	38.704,10

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa	Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
1440000	Larraun	346.994,00	1650000	Mendabia	1.015.446,32
1440100	Albiasu	3.460,54	1660000	Mendaza	96.571,48
1440200	Aldatz	18.300,71	1660100	Acedo	18.266,38
1440300	Alli	6.203,55	1660200	Asarta	6.456,18
1440400	Arruiz	15.415,37	1660300	Mendaza	12.512,17
1440500	Astiz	5.710,75	1660400	Ubago	4.593,64
1440600	Azpirotz-Lezaeta	10.217,62	1670000	Mendigorria	259.148,60
1440700	Baraibar	11.942,89	1680000	Metauten	77.080,57
1440800	Etxarri	11.618,32	1680100	Arteaga	4.132,49
1440900	Errazkin	12.086,46	1680200	Gauza	6.821,17
1441000	Gorriti	13.375,84	1680300	Metauten	5.103,64
1441100	Uitzi	18.180,88	1680400	Ollobarren	5.208,82
1441200	Iribas	6.023,97	1680500	Ollogoien	2.781,53
1441400	Madotz	2.356,07	1680600	Zufia	9.864,67
1441500	Mugiro	9.471,59	1690000	Milagro	892.560,93
1441600	Oderitz	6.878,40	1700000	Mirafuentes	18.715,30
1450000	Elizagorria	48.580,12	1710000	Miranda Arga	254.261,72
1460000	Leatxe	18.097,56	1720000	Elo	148.521,43
1470000	Legarda	27.386,81	1730000	Monteagudo	406.057,41
1480000	Legaria	47.842,97	1740000	Morentin	41.578,20
1490000	Leitza	642.835,73	1750000	Mues	53.461,22
1500000	Leotz	74.049,80	1760000	Murchante	1.085.488,58
1500600	Iratxeta	5.596,63	1770000	Murieta	101.279,63
1500700	Leotz	2.479,19	1780000	Murillo el Cuende	127.670,23
1500900	Oleta	3.598,27	1780100	Murillo el Cuende	7.498,99
1510000	Lerga	21.036,81	1780200	Arrada	58.396,47
1520000	Lerin	476.018,74	1780300	Traibuenas	6.000,47
1530000	Lesaka	650.832,48	1790000	Murillo el Fruto	179.773,57
1540000	Lezaun	92.802,82	1800000	Muruzabal	111.662,07
1550000	Ledea	118.004,58	1810000	Nabaskoze	48.449,22
1560000	Lizoain-Arriasgoiti	66.459,22	1810100	Aizpurgi	3.726,48
1570000	Lodosa	1.421.949,55	1810200	Nabaskoze	14.712,82
1580000	Longida	82.198,53	1810300	Ustaize	2.352,55
1580100	Aos	6.113,73	1820000	Nazar	21.728,07
1580200	Artaxo	4.102,17	1830000	Obanos	316.650,15
1580300	Ekai Longida	9.307,88	1840000	Oko	36.802,53
1580800	Murelu Longida	3.339,74	1850000	Otsagabia	200.195,40
1581100	Billabeta	2.857,34	1860000	Odieta	76.215,37
1590000	Irunberri	357.993,02	1860100	Anotzibar	3.131,94
1600000	Lukin	42.740,93	1860200	Ziaurritz	6.119,52
1610000	Mañeru	110.992,52	1860300	Gaskue	3.983,17
1620000	Marañón	20.042,77	1860400	Gelbentzu	3.153,93
1630000	Martzilla	696.086,36	1860500	Gendulain	1.620,20
1640000	Mélida	201.192,59	1860600	Latasa	3.122,49

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa	Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
1860700	Ostitz	9.268,96	2040000	Piedramillera	24.699,40
1860800	Erripa	4.112,47	2050000	Pitillas	200.895,63
1870000	Oiz	29.064,04	2060000	Gares	752.570,48
1880000	Olaibar	53.570,76	2070000	Puiu	101.792,77
1880100	Enderitz	7.923,82	2080000	Ribaforada	1.138.463,72
1880200	Olaitz	2.408,79	2090000	Erromantzatua	54.345,80
1880300	Olabe	5.088,59	2090100	Arbontze	6.145,64
1880400	Otsakain	4.426,17	2090300	Biotzari	6.909,45
1890000	Olazti	411.448,08	2090400	Domeñu	4.377,78
1900000	Olexoa	21.258,38	2100000	Erronkari	75.479,72
1910000	Erriberri	925.857,69	2110000	Orreaga	12.001,62
1920000	Oloritz	43.090,29	2120000	Zare	72.418,30
1920100	Etxague	2.124,21	2130000	Saldias	27.898,64
1920200	Mendibil	4.479,32	2140000	Jaitz	34.427,85
1920300	Oloritz	4.977,27	2150000	San Adrián	1.501.236,73
1920500	Soltxaga	4.701,37	2160000	Zangoza	1.140.350,69
1930000	Oltza Zendea	284.258,39	2160100	Gabarderal	23.541,79
1930100	Arazuri	52.499,25	2160200	Rocaforte	127.728,42
1930200	Artazkotz	2.341,17	2170000	San Martin Unx	111.972,89
1930300	Asiain	11.145,37	2190000	Santsol	37.326,54
1930400	Ibero	15.239,52	2200000	Santakara	221.321,41
1930500	Izkue	6.527,75	2210000	Doneztebe	381.990,10
1930600	Izu	3.517,93	2220000	Sartze	17.633,45
1930700	Lizasoain	6.064,51	2220100	Ibiltzieta	3.757,43
1930800	Oltza	4.657,74	2220200	Sartze	3.865,54
1931000	Ororbia	46.455,77	2230000	Sartaguda	514.928,67
1940000	Ollaran	103.690,29	2240000	Sesma	395.162,85
1940100	Anotz	3.503,57	2250000	Sorlada	30.150,79
1940200	Arteta	3.880,17	2260000	Sunbilla	166.007,27
1940300	Beasoain-Egillor	11.626,59	2270000	Tafalla	2.985.083,62
1940400	Iltzarbe	4.709,34	2280000	Tebas-Muru Artederreta	104.840,37
1940500	Olo	5.732,86	2280100	Muru Artederreta	21.593,32
1940600	Saldise	3.018,50	2280200	Tebas	31.111,33
1940700	Senosiain	4.068,04	2290000	Tirapu	14.369,63
1940800	Ultzurrun	9.145,31	2300000	Torralba del Río	50.120,06
1950000	Orbaizeta	59.978,64	2300100	Otiñano	3.911,84
1960000	Orbara	20.757,69	2310000	Torres del Río	50.403,57
1970000	Orisoain	23.607,03	2320000	Tutera	9.214.827,87
1980000	Orontze	15.014,37	2330000	Tulebras	64.065,47
1990000	Orotz-Betelu	50.724,60	2340000	Ukar	51.929,76
2000000	Oteitza	242.857,86	2350000	Uxue	51.143,70
2010000	Iruña	55.362.692,73	2360000	Ultzama	284.835,89
2020000	Azkoién	1.519.966,30	2360100	Alkotz	18.453,34
2030000	Petilla Aragoi	7.887,01	2360200	Arraitz-Orkin	13.587,84

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa	Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
2360300	Auza	15.355,42	2560000	Hiriberri Aezkoa	36.382,51
2360400	Zenotz	2.886,59	2570000	Villatuerta	331.016,91
2360500	Eltso	3.615,08	2580000	Atarrabia	2.643.466,80
2360600	Eltzaburu	13.263,31	2590000	Igantzi	130.282,33
2360700	Gorrontz-Olano	2.486,15	2600000	Deierri	403.645,98
2360800	Gerendiain	11.549,04	2600100	Allotz	14.212,80
2360900	Ilarregi	4.325,99	2600200	Arandigoien	10.490,42
2361000	Iraizotz	24.831,41	2600300	Aritzala	9.411,59
2361100	Suarbe	3.450,55	2600400	Aritzaleta	5.602,56
2361200	Larraitzar	63.895,82	2600500	Aizkoa	11.981,90
2361300	Lizaso	11.724,36	2600600	Bearin	22.278,72
2361400	Urritzola-Galain	4.275,49	2600700	Eraul	7.719,81
2370000	Untzitibar	57.524,74	2600800	Gorozin	4.191,11
2370100	Altzorritz	4.285,12	2600900	Ibiriku Deierri	6.289,13
2370200	Artaitz	4.828,52	2601000	Iruñela	5.826,40
2370300	Zenborain	2.949,62	2601100	Lakar	7.069,88
2370500	Untziti	7.692,31	2601200	Lorka	15.129,62
2370600	Zabaltzeta	1.928,65	2601300	Murelu Deierri	3.953,43
2380000	Untzue	44.042,06	2601400	Murugarren	8.902,51
2390000	Urdazubi	86.326,81	2601500	Errezu	12.860,39
2400000	Urdiain	180.588,57	2601600	Ugar	4.844,10
2410000	Urraulgoiti	53.444,39	2601700	Hiriberri Deierri	7.274,95
2410200	Aietxu	1.798,01	2601800	Zabal	9.228,19
2410600	Imirizaldu	4.029,12	2601900	Zurukuain	11.161,15
2410700	Irurozki	5.420,52	2610000	Esa	111.013,09
2410800	Ongotz	2.143,02	2620000	Zabaltza	62.742,31
2420000	Urraulbeiti	70.035,87	2620100	Arraitza	9.752,20
2420100	Artieda	10.478,24	2620200	Ubani	11.740,51
2420500	Arripodas	2.798,92	2620300	Zabaltza	5.396,85
2420600	San Vicente	2.684,08	2630000	Zubieta	69.041,13
2420800	Tabar	7.074,18	2640000	Zugarramurdi	63.122,42
2430000	Urrotz-Hiria	111.863,04	2650000	Zuñiga	45.800,82
2440000	Urroz	36.057,43	9010000	Barañain	5.515.062,63
2450000	Urzainki	22.051,57	9020000	Berriobeiti	728.914,64
2460000	Uterga	57.078,70	9020100	Aitzoain	34.177,27
2470000	Uztarroze	55.891,62	9020300	Añezkar	9.978,61
2480000	Luzaide	84.989,37	9020400	Artika	195.868,03
2490000	Valtierra	640.941,37	9020500	Ballariain	4.217,71
2500000	Bera	769.914,39	9020600	Berriobeiti	32.174,13
2510000	Viana	1.148.136,36	9020700	Berriogoiti	38.817,80
2520000	Bidankoze	20.224,39	9020900	Elkarte	2.010,65
2530000	Bidaurreta	40.051,85	9021000	Larrageta	4.149,61
2540000	Alesbes	767.327,79	9021100	Lotza	3.978,59
2550000	Villamayor de Monjardín	32.878,33	9021200	Oteitza	4.155,64

Entitatearen kodea	Toki entitatea	2015eko zenbatekoa
9030000	Berriozar	2.296.353,98
9040000	Irurtzun	610.899,89
9050000	Beriain	992.594,54
9060000	Orkoién	604.891,09
9070000	Zizur Nagusia	3.345.308,95
9080000	Lekunberri	512.970,96
	Guztira	171.474.537,00

Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko abuztuaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Par-lamentura igorri du Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Ba-tzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko irailaren 26an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artiku-luan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Ondarearen gaineko zergaren egungo moldea azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen bidez eza-rrri zen Nafarroako Foru Komunitatean, eta hark indargabetu egin zituen Foru Diputazioaren 1977ko abenduaren 28ko eta 1978ko otsailaren 9ko Erabakiak, pertsona fisikoen ondarearen gai-neko zerga berezia arautzen zutenak.

Zerga hori galdagarria izan zen harik eta aben-duaren 24ko 22/2008 Foru Legeak, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoak, indarra hartu arte. Arau horrek, ondorioak 2008ko urtarrilaren 1etik aitzina zituenak, ez zuen, berez, zerga indargabetu, benetan ordaindu beharra kendu zuen bakarrik; izan ere, %100eko hobaria ezarri zuen kuota osoan, eta aitortu beharra kendu.

Abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legeak, ondo-rioak 2011ko urtarrilaren 1etik aitzina zituenak, zama berraktibatu zuen, %100eko hobari orokor aipatua deuseztatuta eta aitortpena aurkeztu beha-rra berriz ezarrita.

Nafarroan egun indarra duen araudia aztertuta, eta araubide arrunteko autonomia erkidegoen araudiarekin eta Euskadiko Lurralde Historikoeta-koarekin alderatuta, garbi agertzen da desberdin-tasunak daudela haien artean eta, horien ondo-rioz, Nafarroan tributua ordaindu behar duten subjektu pasiboek zenbateko handiagoa ematen diotela altxor publikoari, aipatutako tributu araubi-de horietan indarra duten araudiak aplikatuta baino.

Egoera hau zuzentzearen, hiru aldaketa egi-ten dira Ondarearen gaineko Zergari buruzko aza-roaren 19ko 13/1992 Foru Legearen arauetan. 28. artikuluan 1. atalean, likidazio-oinarriari buruzkoa baita, igo egiten da salbuetsita dagoen gu-txienekoa, egungo 311.023,76 eurotik milioi bat eurora. 30. artikuluan, karga eskala arautzen baitu, likidazio-oinarriaren tarteetan aldaketarik egin gabe, tarte bakoitzeko tasa marjinalak %20 jaisten dira. Azkenik, 36. artikulua, aitortpena aurkeztu behar duten pertsonen buruzkoa, eguneratu egiten da, subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideen balioaren muga igota, 2.000.000 euro arte.

Artikulu bakarra. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea alda-tzea.

2015eko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Ondare-aren gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen xedapen hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 28.1. artikulua.

“1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 1.000.000 euro murriztuko da”.

Bi. 30. artikulua. Kuota osoa.

“Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalako karga-tasak ezarriko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Gainerako likidazio oinarria (zenbat euro arte)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	Edo gehiago	2,00”

Hiru. 36. artikulua.

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak:

Haien tributu-kuota (zergaren arauekin bat zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean aurkeztu beharko dute nahitaez aitorpena subjektu pasiboek, edo, kasu hori gertatzen

ez denean, haien ondasun edo eskubideen balioa (zergaren arauekin bat kalkulaturik) 2.000.000 eurotik gorakoa denean.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko abuztuaren 27an hartutako erabakiaren bidez, foru lege proiektu hau igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea aipatu Foru Lege proiektua.
2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko irailaren 26an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko irailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Enpresen zorra berfinantzatu eta birmoldatzeko presako neurriak hartzeko martxoaren 7ko 4/2014 Errege Lege-dekretuak Konkurtsoari buruzko Legearen alderdi garrantzitsu batzuk aldatu ditu, besteak beste, hauek: konkurtso aurreko fasea; auzibidez homologatutako berfinantzate akordioak –zorraren gerorapenak ez ezik kitak eta zorra kapitalizatze formulak ere jaso daitezke bertan–; eta ordainketarako auzibidez kanpoko akordioak.

Tributu zama oztopo izan ez dadin berfinantzatzeko eragiketarako eta ordainketarako auzibidez kanpoko akordioetarako, aipatutako errege lege-dekretuak zerga arloko zenbait neurri ezartzen ditu, eta beharrezkoa da orain horiek ekartzea Foru Komunitateko tributuen antolamendura, Nafarroako enpresen egoera ez dadin izan araubide arrunteko lurraldean daudenena baino okerragoa.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, testu bateginaren 35.I.B) artikulua 21. zenbakia aldatu da, zenbaki horretan aurrekusten den salbuespenaren esparrua handitzeko xedeaz.

Arauren egungo testuak ezartzen duenez, kapital handitzeak salbuesirik daude hartzekodunen konkurtsoan dauden pertsona juridikoek eginak badira, kredituak kapital bihurtzeko, Konkurtsoari buruzko Legeari jarraikiz auzibidez

onetsitako hitzarmen batean ezarritakoa betetzeko.

Proposatzen den berritasuna da salbuespen bat ezartzea zordunaren maileguen, kredituen eta gainerako betebeharren kitak edo gutxitzeak jasotzen dituzten eskrituren kasuan, betiere berfinantzatze akordioen barruan edo Konkurtsoari buruzko Legean ordainketarako aurreikusitako auzibidez kanpoko akordioen barruan gertatzen badira, eta zergaren subjektu pasiboa konkurtso aurreko egoeran edo konkurtso egoeran dagoen zorduna bada.

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu- araubidea erregulatzen duen ekainaren 2ko 10/1996 Foru Legean egindako aldaketak, berriz, beste izaera batekoak dira, eta gai hauei buruzkoak: errentak edo diru-sarrerak fundazioen xedeetarako erabiltzea; 11. artikuluan fundazioei kontabilitatearen, auditoretzaren eta aurrekontuen arloan, ezartzen zaizkien betebeharrak, aurkeztu beharreko agiriak erraztu eta berrantolatu egin baitira, fundazioko eta patronatuetaiko kideek aurrerantzean etekinak lortu ahal baitituzte fundazioarentzat egindako lan edo lanbide harremanengatik; arauan ezarritako betekizunak entitateak ez betetzeak dakartzan ondorioak, ez-betetze horietako bakoitzaren ondorioak argi zehaztuta eta araubidea galtzeko aukera ezarrita ez-betetzea sistematikoa den kasurako; lortutako errentak salbuetsirik daudela deklaratzeko bete behar dituzten baldintzak; zenbait errentaren atxikipena ez egiteko eman beharreko ziurtagiria, haren edukia aldatu eta balioa urtebetera mugatu baita; eta Nafarroako fundazioen parekoak diren entitateei 10/1996 Foru Legearen 11. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzeko beharra ezartzea, artikulua horren edukia argiago azalduta.

Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeak ere aldaketa batzuk izan ditu; izan ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legean aldaketa orokor batzuk egiten dira, honekin batera aldi berean tramitatzen ari den foru lege proiektu baten bidez, eta, horren ondorioz, kooperatiben zerga araubide berezi hori sozietateen gaineko zergaren aldaketa orokor horietara egokitu beharko da, zehazki, arlo hauetan: kooperatiben emaitzen karga-tasa, 100eko 18koa izatetik 17koa izatera pasako baita; galeren konpentsazioa, konpentsazio epea hamar urtera mugatu baita; zerga onurak, amortizaziorako askatasuna desagertu baita; eta kreditu kooperatibentzako karga-tasa, gai honetan aurreikusi baita tasa orokorra aplikatuko zaiela emaitza mota guztiei, kooperatibarenak izan nahiz kooperatibatik kanpokoak izan.

Bestalde, 9/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat erantsi zaio, Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean aurreikusten den gutxieneko zerga tasa (24/1996 Foru Legearen 51. artikulua) entitate horiei ez zaiela aplikatuko ezartzeko.

Lehenengo artikulua. Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bateginaren aldaketa.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako xedapenen testu bategineko 35.I.B) artikulua 21. zenbakia honela idatzita geldituko da:

“21. Zordunaren maileguen, kredituen eta gainerako betebeharren kitak edo gutxitzeak jasotzen dituzten eskriturak, berfinantzatze akordioen barruan edo uztailearen 9ko 22/2003 Konkurtsoari buruzko Legean ordainketarako aurreikusitako auzibidez kanpoko akordioen barruan sartuta daudenean, eta, betiere, kasu guztietan zorduna bada zergaren subjektu pasiboa.”

Bigarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea arautzen duen Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 9.1. artikulua.

“1. Fundazioaren helburuetarako erabili beharko dira, gutxienez, fundazioak lortutako errenta eta diru-sarrera garbien 100eko 70. Errenta horien kalkuluan ez dira sartuko ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketan lortutakoak, entitateak bere helburua edo xedeari dagokion jardueran higiezin horietan aritzen bada; eskualdaketa horren zenbatekoa, betiere, berriz inbertituko da ezaugarri hori betetzen duten ondasun eta eskubideetan. Ondareko zuzkidura gisa egiten diren ekarpenak, dela eraketa unean dela geroago, ez dira kontatuko zenbaki honetan ezarritako ondorioetarako.”

Bi. 11. artikulua.

“11. artikulua. Kontabilitatea eta auditoretza.

1. Foru lege honetako tributu araubideari atxikitzen zaizkion fundazioei derrigorrez aplikatuko zaizkie Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak, Nafarroako Foru Komunitateak ezar ditzakeen espezialitateak gorabehera.

Sozietateen gaineko zergan salbuetsi gabe dauden ustiategietatik errentak lortzen dituzten fundazioek Merkataritza Kodean eta zerga horren arau erregulatzailuetan aurreikusitako kontabilitate-betebeharrak izanen dituzte. Entitate horien kontabilitatea halako moduan eramanen da non aukera emanen baitu salbuetsirik ez dauden ustiapen ekonomikoei dagozkien diru-sarrerak eta gastuak identifikatzeko.

2. Urtero, fundazioaren patronatuak egoeraren balantzea eta emaitzen kontua eginen ditu, zeinetan argiro azalduko baita fundazioaren diru, finantza eta ondare egoera zein den, eta memoria bat ere prestatuko du, fundazioaren jarduerak eta haren kudeaketa ekonomikoa zein izan diren adierazteko, eta fundazioaren helburuak zehazki zenbateraino bete diren ere adierazteko. Memorian diru-sarrerak eta gastuak zehaztuko dira, proiektuen eta kategorien arabera sailkatuta, bai eta honakoak ere: inbentarioa, diru-sarreraren helburuaren gaineko jarraipena, 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, merkataritzako entitateetan duten partaidetzaren portzentajea, eta gobernu, zuzendaritza eta ordezkari organoetan izan dituzten aldaketak.

3. 2. idatz-zatian aipatzen diren agiriak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko epean. Egoeraren balantzea eta emaitzen kontua, berriz, zergari dagokion aitorpenean aurkeztuko dira.

4. Fundazioetako kontuei kanpoko auditoretza eginen zaie, ekitaldia ixten den egunean, bi urtez jarraian, hurrengo alderdietako bi gutxienez gertatzen badira:

a) Aktiboko kontu-sailek, guztira, 2.400.000 euro baino gehiago egiten badute.

b) Haien diru-sarreraren urteko zifraren zenbategarbia 2.400.000 eurotik gorakoa bada.

c) Ekitaldian izan duten langileen batez besteko kopurua berrogeita hamarretik gorakoa bada.

Era berean, kontuei kanpoko auditoretza egiten zaie Fundazioko Patronatuaren edo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren iritziz, baldin eta, ezaugarri bereziengatik, hala egitea komeni denean, betiere kudeatutako ondarearen zenbatekoa edo jardueren bolumena kontuan izanda.

Auditoretzako txostenak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira 3. zenbakian finkatutako epean.

5. Aurreko 2. eta 4. zenbakietan aipatzen diren dokumentuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta

Enpleguko kontseilariak ezartzen duen moduan eta tokian aurkeztuko dira, eta hark erabakiko du haien gutxieneko edukia eta zer baldintzatan aurkeztuko diren, baita baliabide informatiko edo telematikoko bitartez aurkeztu behar diren edo ez."

Hiru. 14. artikulua.

"14. artikulua. Ordainsaria.

Aurreko artikuluan xedatutakoa ezertan ukatu gabe, patronatuko kideek entitatearen ordainsariak jaso ditzakete lan edo lanbide harreman baten ondorioz zerbitzuak emategatik. Edozein kasutan ere, ordaindutako zerbitzu horiek ez dira izanen patronatuko kide karguari dagozkion zeregin eta eginkizun berberak.

Lan edo lanbide harremana arautzeko, lan edo merkataritzako kontratu bat egin beharko da, zein zeregin ordainduko diren argi zehaztuko duena.

Patronatuko kide batekin formalizatutako kontratuen zenbatekoak muga hauetako txikiena baino txikiagoa izan beharko du: 60.000 euro urtean edo patronatuak onartutako azken ekitaldi ixian fundazioak izandako diru-sarreraren 100eko 5.

Patronatuko kide ez den fundazioko kideak ere ordainsariak jaso ditzake fundaziolari emandako zerbitzuen truke, aurreko lerrokadetan ezarritako baldintzak eta mugak aplikatuta betiere."

Lau. 17 artikulua.

"17. artikulua. Baldintzen ez-betetzeak egiaztatzea eta haien ondorioak.

1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak araubide berezi horretaz baliatze beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du eta, hala behar denean, fundazioaren tributu egoeraren ondoriozko erregularizazioa egiten du.

2. Foru lege honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, entitatea beharturik egonen da oso-osorik pagatzera honako zerga hauen kuotak, tributuen gaineko arauekin bat: sozietateen gaineko zerga, toki-tributuak eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Halaber, berandutza-interesak eta, bidezko izanez gero, zehapenak ere ordaindu beharko ditu, artikulua honetan ezarritako moduan.

3. Aurreko lerrokadako betebeharrak hori gaizki aplikatutako emaitzak eta diru-sarrerak lortu ziren ekitaldiko kuotei dagokie, baldin eta foru lege honen 9. artikuluan ezarritako eginbeharra bada. Legearen 12. artikuluan agindutakoa izanez gero, berriz, ez-betetzea egin den ekitaldia eta aurreko laurak hartuko dira kontuan; hori hala ere, ez da

eragozpen izanen bidezko izan daitezkeen zeharpenak ezartzeko.

11. artikuluan ezarritako betebeharrak urratzean, berriz, sozietateen gaineko zergari eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokienez ordaindu beharreko kuotak dokumentazioan jasotako ekitaldikoak izanen dira.

11. artikuluan aipatzen den dokumentazioa, aurkezpen epea amaitua duen ekitaldiari buruzkoa, zergaren sorrarazpen egunean osorik aurkeztu ez duten entitateek ez dituzte izanen foru lege honen 30. eta 31. artikuluetan ezarritako salbuespenak, ez eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150. 1. d) eta e) eta 173.2. c) artikuluetan ezartzen direnak ere. Betebehar hauek betetzeari edo ez betetzeari buruzko informazioa kasuan kasuko udalari jakinaraziko dio Nafarroako Zerga Ogasunak, hala eskatuz gero.

Aurreko zenbakietan aurreikusirik ez dauden gainerako kasuetan, 2. zenbakian aipatzen den ez-betetzeak hura gertatzen den ekitaldiko kuotak ordaintzeko betebeharra ekarriko du.

4. Araubidez baliatzeko baldintzak modu sistematikoan betetzen ez badira, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak araubidea galdu dela deklaratu dezake. Ondorio horietarako, ez-betetzea sistematikoa dela ulertuko da entitateak bost urteko epean hiru ekitalditan betetzen ez dituztenean zerga araubide honen baldintzak. Nolanahi ere, ez-betetzea sistematikoa dela ulertuko da 11. artikuluan aipatzen diren agiriak hiru ekitalditan jarraian aurkeztu ez direnean. Irizpide hori bera aplikatuko da begi bistakoa denean aurkeztutako agiriak ez direla aski egiaztatzeko zerga araubide honen baldintzak betetzen direla.

Ondorio horietarako, entitate interesdunari entzun ondoren, ebazpena emanen da, eta ukitutako udalei ere igorriko zaie.

Araubidea galdu dela deklaratzeko duen ebazpena jakinarazi eta urtebete iragan ondoren, entitateak araubidea berreskuratzeko eskaera egin dezake, baina Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuan frogatu beharko du beharrezkoak diren neurriak hartu dituela galera eragin zuten ez-betetzeak errepika ez daitezen; kasu horretan 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.”

Bost. 18.1. artikulua.

“1. Fundazioek erdietsitako errentak salbuetsita egonen dira kasu hauetan:

a) Fundazioaren xede soziala edo haren berariazko helburua osatzen duten ohiko jardueretatik ateratakoak badira, ustiapen ekonomiko baten bidez edo bestela.

b) Ondasunen edo eskubideen erosketen edo eskualdaketen ondorio direnean, edozein tituluren bidez, entitatearen desegitea edo likidazioa dela eta lortutakoak barne.

Administrazio publikotik eta beste erakunde edo ente publikoetatik eskuratutako diru-laguntzak salbuetsitako errentak izanen dira, betiere entitatearen xedeak gauzatzeko erabiltzen badira eta salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoak finantzatzeko erabiltzen ez badira.

Ondasunen edo eskubideen irabazizko eskuraztearen kasuan, fundazioaren xedeak gauzatzeko erabili beharko dira, edo eskuratu ziren egunetik bi urteko epean besterendu. Epe hori luzatu ahal izanen da baldin eta ondasun edo eskubide horien xedea Fundazioak egin eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak onartutako plan baten arabera bada.

Kostu bidezko eskualdaketen kasuan, lortutako kontraprestazioa entitatearen berariazko xede edo helburua gauzatzeko erabili beharko da.

c) Hirugarrenei lagatako ondare-elementuen ondoriozkoak, konparazio batera, sozietate, interes, kanon eta alokairuetatik datozen irabazietako dibidendu eta partaidetzak.”

Sei. 22. artikulua.

“22. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboaren konpentsazioa.

Likidazio oinarri negatiboak konpentsatu ahaliko dira, ondoz-ondoko hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazio oinarri positiboekin. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek.”

Zazpi. 25.3 artikulua.

“3. Ez da atxikipenik ez konturako diru-sarrerarik ere eginen foru lege honen ondorioz salbuetsita dauden errentengatik, ezta hirugarrenei lagatzen zaizkien ondare elementuen ondoriozkoengatik ere, zeinen artean sartzen baitira sozietate, interes, kanon eta alokairuetatik datozen irabazietako dibidendu eta partaidetzak, ez eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketen ondoriozko ondare-gehiruntzengatik ere.

Errenta horien atxikipenik ez egiteko, 11. artikuluan ezarritako betebeharrak egunean eduki behar

dira, aurkezpen epea amaitua duen azken ekitaldiari dagokionez; baldintza hori Nafarroako Zerga Ogasunak urtebeterako balioarekin emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko da.”

Zortzi. Bigarren xedapen gehigarria. 2

“2. Tributu araubide hau aplikatzeko, Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean frogatu beharko da kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen direla, aurreko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat, eta zenbaki horretan aipatzen diren entitateek 11. artikuluan fundazioei ezartzen zaizkien eskakizunak bete beharko dituzte.

Ondorio horietarako, 11. artikuluan ezartzen diren betebeharrak bete direla ulertuko da entitateek antzekoa edo baliokidea den zerga araubidea dutenean eta kontabilitate eta auditoretza arloetan dituzten betebeharrak araubide horri jarraikiz bete dituztenean. Horrek ez du galarazten Nafarroako Zerga Ogasunak eskubidea izatea dokumentazio hori eskatzeko aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako”

Hirugarren artikulua. Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testua izanen dute:

Bat. 20.1.1. artikulua.

“1. Zerga kontuetarako babesturiko kooperatibei tasa hauek ezarriko zaizkie:

1. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari 100eko 17ko tasa aplikatuko zaio.”

Bi. 21.1. artikulua.

“1. Aurreko artikuluan aipatzen den batura negatiboa bada, zenbatekoa konpentsatu ahal izanen da ondoko hamar urteetan, jarraian, amaitutako zergaldietako kuota positibo osoekin. Kuota negatiboek beharko dute izan egin beharreko likidazio edo autolikizazioaren ondorioa. Konpentsazioa egiten bada, kuota negatiboen zergaldiak preskribitu gabeak izanen dira, dagokion konpentsazioaren zenbatekoa kalkulatzearen ondorioetarako soilik.”

Hiru. 27. artikulua.

2. idatz-zatia kendu da, eta 3. idatz-zatia 2. idatz-zati berria izanen da.

Lau. 37 artikulua.

“37. artikulua. Karga-tasa.

Aurreko artikuluan aipatzen diren kreditu kooperatiba babestuei Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1 artikuluan ezarritako tasa orokorra aplikatuko zaie.”

Bost. Hamaikarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikuluan ezarritako gutxieneko zerga-tasa ez aplikatzea.

Foru lege honen hirugarren xedapen iragankorren ezarritakoa ukatu gabe, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikulua ez zaie aplikatuko foru lege honen arabera babes berezia duten kooperatibei, ez eta babes berezia duten nekazaritzako kooperatibak diren lehentasunezko elkarkidetzako ustiategiei ere. Era berean, ez zaie aplikatuko laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kooperatibei ere.”

Sei. Hirugarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hirugarren xedapen iragankorra. 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiei dagozkien kuota negatiboak.

21.1 artikuluan aipatzen den batura negatiboak, 2015eko urtarrilaren 1ean konpentsatu gabe dagoenak eta 2015eko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldia baino lehenago sortutakoak, aldaketa honek indarra hartzen duenetik aurrera jarraian kontatutako ondoko hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien kuota positibo osoak gutxitu ahal izanen ditu.

Halere, ez dira konpentsatuko aurreko lerrokadan aipatzen den datan ordaindu gabe dauden zenbatekoak, betiere, bertan aipatzen den hamar urteko epea iragan aurretik, hamabost urte baino gehiago iragan badira sortu ziren egunetik.

Foru lege honen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ukatu gabe, bai kasu hauetan bai aurreko urteetan ordaindu ez den kuota osoaren kenkariak aplikatzen diren kasuetan, kontuan hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru legearen 51. artikuluan ezarritakoa.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

PROPOSAMENAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria, jakinarazpenak jasotzeko, Pablo Sánchez González baita. Mahaiak tramitera onartu zuen, 2013ko abenduaren 9an harturiko erabaki baten bidez.

Hauteskunde Batzorde Zentralak, 2014ko uztailaren 15ean harturiko erabakiaren bidez, Parlamentu honi igorri dio Estatistikako Institutu Nazionalako Hauteskunde Erroldako Bulegoaren Zuzendariorde Nagusiak egindako ziurtagiria, non egiaztatzen baita aipaturiko legegintza-ekimena izenpetu dutenen sinadura baliozkodunen kopuruak gaituzten zuela aurkeztu zen egunean autonomia erkidegoan indarrean zen erroldako hautesleen ehuneko 1, 3/1985 Foru Legeko 1. eta 2. artikuluek behartzen duten moduan. Hori guztia kontuan izanik, aipatu Foru Lege proposamena izapidetu behar da 3/1985 Foru Legearen 3. eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.1d), 148. eta 149. artikuluetan aurreikusitako eran. Horretarako, legegintza-ekimenaren Sustapen Batzordeak Pablo Sánchez González jauna izendatu zuen proposamena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran defenda dezan aintzat hartzeko eztabaidan.

Hori horrela, aplikatzekoa den araudiarekin bat, ERABAKI DA:

1. Agintzea Kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko herriaren legegintza-ekimena

Herriaren legegintza-ekimen hau tramitatu eta onartzeko arrazoiak

Herriaren legegintza-ekimen hau bultzatzen dutenek arlo publikoak zeharka kudeatu edo ustiatzen dituen jarduera edo zerbitzuetako arazo batzuei heldu nahi diete.

Ekimen honen sustatzaileen ustez, azpi-kontratazioak lan merkatuan ezegonkortasun arazoak sortzen ditu; batetik, lan-baldintzei dagokienez gutxieneko maila bat ez dagoelako (legezko minimo-etatik hara), eta bestetik, gauza publikoa kudeatzeko modu honek sarri enplegu ezegonkorra sortzen duelako.

Enplegu azpikontratatuaren prekarioa eta ezegonkorra izatea aski arrazoi bada lege bat bultzatzeko; honek bermatu egingo lituzke gutxieneko baldintza sozialak Nafarroako Foru Erkidegoko herri-botereek zerikusia duten kasuetan: lanak burutzeko kontratak, herri lanen esleipena, zerbitzu publikoen kudeaketa nahiz beste zerbitzu batzuk.

Horrenbestez, hau bultzatzen dutenek formulak ezarri nahi lituzkete Nafarroako Foru Erkidegoko lan merkatuari ahalik egonkortasun handiena emate aldera. Egia da Parlamentu honek ez duela legegintza laboraleko eskumenik, baina bestalde, langile kopuru handi bat dago, zuzenean edo zeharka, herri-administrazioen menpean. Esaterako, herri-administrazioetan zuzenean lan egiten

duten beharginak (funtzionario, estatutario zein laboralak). Saina gainera, enpresa pribatueta diharduen beste pertsona askok arlo publikorako zeharka egiten dute lan, Arlo Publikoko Kontratuen Legearen baitan egindako kontratuen bitartez. Hain zuzen, kontratazio publikoa jarduera ekonomiko garrantzitsua da, eta beronetan herri-botereek esku har dezakete, kontratueterako gutxieneko baldintza batzuk ezarri.

Garrantzitsua da azpikontrata bidez zerbitzuak zeharka kudeatzeko erabakia hartzen duten herri-administrazioek irizpide ekonomizista hutsetan ez geratzea; aitzitik, beste faktore batzuk ere kontutan izan behar dira, erabateko garrantzia baitute: esaterako, kontratu bidez ematen den zerbitzua gauzatu edota jarduera garatzen dutenen lan baldintzak. Honek guztiak aukera emango du eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Hitzarmen kolektiboa, kontratu publikoei ezarri beharreko lan-baldintzak

Hitzarmen kolektiboen iraupenari buruzko erregimen legalean egin diren erreformek, eta zehazki ultra-aktibitatea urtebetara mugatu izanak, zalan-tza juridiko orokorra hedatu du hitzarmenaren araututa zeuden lan-baldintzei dagokienez, hauek legearen arabera dagoeneko indarrean ez dauden kasuetan.

Gainera, hitzarmen sektorial probintzialek ezarritako baldintzak, honez gero ez dira sektoreko gutxieneko baldintzak, negoziazio kolektiboaren egituraren eta hitzarmen kolektiboen konkurrentzia-erregimenean egindako erreformen ondoren.

Honen ondorioz, beharrezkoa da ekimen bat gutxieneko lan-baldintzak ezartzeko; halakotzat joko dira kontratua garatzen den sektoreko esparru txikieneko hitzarmen sektorialekoak. Izan ere, kontrara, posible litzateke kontratua hartzen duen enpresa bakoitza baldintza desberdinekin aurkeztea, eta horrek *dumping* laboralaren gisako zerbaitei bide emango lioke.

Enplegu azpikontratatuaren egonkortasuna

Zerbitzu publikoen esternalizazioak eragiten duen beste arazo bat enplegu ezegonkorra dugu. Enpresa kontratistak sarri aldatzen dira, eta zerbitzua uzten duten enpresetako langileek enplegua galtzen dute edota berriaren beste kontratu bat egiten diete, aurreko baldintzak aintzat hartzen ez direlarik.

Egoera hauek kalte egiten diote enplegu egonkorrari, hots, estatu sozial baten oinarri sozial eta ekonomiko beharko lukeen horri; lehenago hitzarmen sektorialekin konpontzeko saioa egiten zen, subrogazioa aitortzen duten klausula bidez,

eta horretarako ez zen beharrezkoa frogatzea unitate produktibo autonomo baten eskualdatze efektiboa, kontu aski zaila bera.

Haatik, sektore mailako subrogazio-berme hauek pairatzen ari dira negoziazio kolektiboko egituraren erreformak hitzarmen sektorialetan oro har duen eragina; hitzarmenok gehienez probintzialak izan ohi ziren, eta hauek genituen enpresa kontratista aldatuz gero bermerik sendoena. Negoziazio-esparru estatalen ahalmen arautzaile eta egituratzaile handiagoaren eta enpresako hitzarmenaren lehentasunaren eraginez, hainbat hitzarmen probintzial oso mugatuta dago lan-baldintza jakin batzuk arautzeko. Azpi-kontratazioari dagokionez, esaterako, egiturari buruzko hitzarmen estatal batzuk berentzat gordetzen dute hura arautzeko ahalmena, eta propio bazterten dituzte beste esparruak.

Klausula sozialak

Lege honekin aipatutako auziarekiko hartzen den konpromisoa da kontratueta -lan bat egiteko, herri-lanak esleitzeko, zerbitzu publikoak kudeatzeko nahiz zerbitzuak emateko direla ere- klausula sozial jakin batzuk sartuko direla. Exijentzia hau gauzatzearren esleitzeko prozesua arautzen duten baldintza-pleguak erabiliko dira.

Horietan derrigor bete beharreko klausula sozial gisa sartuko dira gutxiarik esparru txikieneko sektore-hitzarmeneko baldintzak derrigor errespetatzea eta kontratua amaitzen duen enpresako langileak subrogatzea, hots, kontratua hartzen duen enpresa berria uzten duenaren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzen da.

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa

ZIOEN AZALPENA

Estatu sozial batean herri-botereen jardunean aintzat hartu beharreko kontua da pertsonen garapena bermatzeko gutxieneko bizi-baldintza batzuk finkatzea.

Krisi ekonomikoak kalte handia eragin du lan merkatuan. Langabezia hazi egin da eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak ari dira jasaten.

Horrenbestez, Parlamentu honi dagokio Nafarroako Foru Erkidegoko lan merkatuari ahal den egonkortasun handiena emateko formulak bilatzen saiatzea. Hain zuzen, kontratazio publikoa jarduera ekonomiko garrantzitsua da, eta bertan herri-

botereek eragina izan dezakete, kontratueterako gutxieneko baldintzak ezarriaz. Enpresa pribatuetan jardunda ere, langile askok dihardu zeharka arlo publikorako, Arlo Publikoko Kontratuen Legearen baitan.

Zehazki Kontratu Publikoen Legearen Testu berrituak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaz onartu zenak, aukera ematen du kontratazio publikoan oinarri sozialak sartzeko; izan daitezke exekuzioko baldintza bereziak nahiz eskaintzak epaitzeko irizpideak, eta gainera, kontu sozialak ere aintzat har daitezke kontratuen xedea definitzerakoan edota klausula batzuetan, esaterako kaudimenari, esleipenari edo exekuziorako baldintza berezietan dagozkien klausuletan.

Beraz, beharrezko jotzen dugu Nafarroako Arlo Publikoan kontratista diren enpresentzat lan egiten duten beharginengan eragin zuzena duten bi arazo motari heltzeko mekanismoak ezartzea. Batetik, aplikatu daitezkeen lan-baldintzei buruzko segurtasun eza; hau bideratzeko gutxieneko baldintza gisa finkatzen dira -nahikoak eta bidezkoak direla uste izanik- enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikieneko azken hitzarmen sektorialekoak. Bestetik, enpleguaren ezegonkortasuna, izan ere, langile askoren itxaropen laborala lotuta baitago enplegatzaileak sinatu duen kontratu publikoaren iraupenarekin; honi aurre egiteko exijentzia bat sartzeko da, enplegua mantentzea enpresa kontratista aldatuagatik ere.

Horretarako, kontratu publikoa egiteko prozesuan derrigor bete beharreko eduki gisa finkatzen da klausula sozial jakin batzuk sartzeko. Betebehar hau Nafarroako Foru Erkidegoko Arlo Publikoaren kontratuak esleitzeko baldintza-pleguren bidez gauzatuko da, lan bat egiteko, herri-lanak esleitzeko, zerbitzu publikoak kudeatzeko nahiz zerbitzuak emateko direla ere. Baldintza-pleguetan derrigor bete beharreko klausula sozial gisa finkatuko dira gutxienez sektoreko esparru txikieneko hitzarmen probintzialeko baldintzak errespetatzea, eta langileak subrogatzea enpresa kontratista aldatzen denean, nahiz kontratistak bere jardueraren beste batekin azpikontratatzeko duenean.

Aipatutako klausula sozialak urratu direla egiaztatuz gero, administrazioak kontratua eteteko aukera izango du.

L. KAPITULUA

Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Xedea

Lege foral honen xedea da jite sozialeko klausulak ezartzea, Nafarroako Foru Erkidegoko Arlo

Publikoa osatzen duten erakundeen kontratazio organoek egiten dituzten kontratazio prozesuetan derrigor sartu beharrekoak, finkatu behar diren edo daitezkeen beste batzuk gorabehera.

2. artikulua. Aplikatzeko esparru objektiboa

Lege honetako xedapenak Nafarroako Foru Erkidegoko Arlo Publikoko erakundeek egiten dituzten kontratazio guztietan aplikatu beharrekoak izango dira -lan bat egiteko, herri-lanak esleitzeko, zerbitzu publikoak kudeatzeko nahiz zerbitzuak emateko direla ere-, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaz onartu zen Kontratu Publikoen Legearen Testu berrituko 6., 7., 8. eta 10. artikuluetan arautuak.

3. artikulua. Aplikatzeko esparru subjektiboa

1. Lege hau Nafarroako Foru Erkidegoko Arlo Publikoa osatzen duten erakundeen kontratazio organo guztiei aplikatu beharrekoa izango da.

2. Lege honen eraginetarako, Nafarroako Foru Erkidegoko Arlo Publikotzat honako administrazioak hartuko dira: Foru Erkidegokoa, Erakunde Autonomoak, Sozietate Publikoak, Fundazioak eta Partzuergoak, eta Nafarroako toki-administrazioak.

II KAPITULUA

Nafarroako Foru Erkidegoko Arlo Publikoaren kontratueterako gutxieneko klausula sozialak

4. artikulua. Enpresa kontratisten gutxieneko baldintzei buruzko klausula soziala.

Lehiaketa iragarpenean zein herri-administrazioetako kontratazio prozeduren klausula administrazioen pleguen karatulan ohar bat jarri beharrekoa izango da, esanez kontratazio hori derrigor bete beharreko baldintza berezi hauen pean dagoela:

"Kontratu honek errespetatu egin behar ditu lanari, gizarte-segurantzari eta lan-osasun eta segurtasunari buruzko xedapenak (lege, araudi eta hitzarmenetakoak direla ere), batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikiena duen azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak".

Aipatutako hitzarmenean jasotako baldintzak izango dira kontratuari dagozkion jarduerak egiten dituzten langileei enplegua emateko gutxieneko baldintzak, nahiz eta hitzarmen hori Langileen Estatutuko 86.3 artikulua ondu ondorioz iraungita egon.

Aurreko puntuaren arabera, erakunde kontratugileak ezarriko duen lizitazio-prezioa nahikoa izan behar da enpresek esparru txikieneko hitzarmen kolektibo sektoriala aplikatzeak eragingo

duen kostua ordain ahal dezaten, subrogatu beharreko guztirako langile kopurua aintzat hartuz, eta lizitazioan ezartzen den orduko prezioa ezin da inola ere apalagoa izan hitzarmeneko orduko prezioa, gehi gizarte-segurantzako kostuak baino.

5. artikulua. Azpi-kontratazioari buruzko klausula soziala.

Lehiaketaren iragarpenean zein herri-administrazioen kontratazio-prozeduren klausula administratiboen pleguetako karatulan ohar bat ezarri beharrekoa izango da, esanez kontratazio hori gutxienik hiru hileko antzintasuna duten langile guztien subrogazioa bermatzeko baldintzapean egiten dela, beste kontrata batekoak izanagatik ere, kontratuko jarduera egiten ari badira; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoa aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez.

Kontratua esleitu zaion enpresak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, klausula administratibo partikularretako pleguetan klausula bat ezarriko da aukera hori arautzeko, eta berriaz aipatuko da hirugarren enpresa horrek jarduera hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharra; enpresario berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio-konpromisoak barne, araudi espezifikoa aurreikusitakoaren arabera, eta oro

har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez.

III. KAPITULUA

Klausula sozialak urratzea.

6. artikulua. Urratzeak. Kontratua etetea.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak kontratuak gauzatzeko baldintza berezi gisa finkatu beharrekoak izango dira, eta hauek gauzatzeko markoan egiaztatu beharko dira. Hauek urratzea betebeharrak kontraktualen arau-hauste larria izango da, eta ondorioz kontratua eteteko aukera irekiko du.

Kontratatzan duten herri-erakundeek klausula administratibo partikularren pleguetan lege honetan ezarritako baldintzak urratzea kontratuko betebeharren arau-hauste oso larritzat finkatuko dituzte, eta horrek kontratua eteteko aukera emango die.

Kontratazio organoek lege honetan ezarritako betebeharrak aintzat hartzen direla zaindu beharko dute.

Xedapen iragankorra.

Foru lege hau ez da aplikatuko dagoeneko esleituta dauden kontratazioetan, ezta bera indarrean sartu aurretik tramitatzen ari zirenetan ere.

Azken xedapena.

Foru lege hau indarrean sartuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

